

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Komunikazioaren garrantziaz jabetzea eta horretan ahalduntzea	<p>1.1. Komunikazioa zer den azaltzeko gai da.</p> <p>1.2. Komunikazioan parte hartzen duten osagaiak bereizteko gai da.</p> <p>1.3. Komunikazioa oztopatzen duten elementuak identifikatzeko gai da.</p> <p>1.4. Komunikatzeko modu ezberdinak ezagutzen ditu.</p>
2. Hedabideek gure gizartean eta bizimoduan duten eraginaz jabetzea.	<p>2.1. Hedabideetan agertu ohi diren gizarte gaiak ezagutu eta aztertzen ditu.</p> <p>2.2. Gazteen bizitzari eragiten dioten gizarte gatazkez hausnartzen du.</p> <p>2.3. Inguruko gatazkei buruzko iritzi pertsonala garatzen eta adierazten du.</p>
3. Komunikabideen bitartez hedatzen den informazioaren aurrean zentzu kritikoa garatzea.	<p>3.1. Hedabideetan agertzen den informazioa modu egokian interpretatzen du, zentzu krikikoarekin.</p> <p>3.2. Kazetaritza-generoetan, objektibotasunaren eta subjektibotasunaren ezaugarriak identifikatzen ditu.</p>
4. Hedabide ezberdinak ezagutzea	<p>4.1. Hedabide ezberdinak ezagutzen ditu (prentsa, grabazioak, zinema irratia, telebista, internet, telefono mugikorrak)</p> <p>4.2. Hedabide ezberdinen ezaugarriak identifikatzen bereizten ditu.</p> <p>4.3. Euskal Herriko hedabide nagusienak ezagutzen ditu.</p> <p>4.4. Euskal Herriko hedabide ezberdinen historia eta gaur egungo egoera ezagutzen du.</p>
5. Hedabideetan agertzen diren testu-genero ezberdinak ezagutzea eta erabiltzen jakitea.	<p>5.1. Hedabideetan erabiltzen diren testu-generoak ezagutzen ditu</p> <p>5.2. Testu-generoen ezaugarri nagusienak identifikatzen ditu.</p> <p>5.3. Hainbat testu-generotako testuak ekoizten ditu.</p>